

BIZKARSORO



Aurkibidea

Sinopsia
Ekipa teknikoa
Ekipa artistikoa
Detaile teknikoak
Zuzendariaren oharra



Sinopsia

Esistitzen ez den herri batean, bost istorio erreal, 1914tik 1982ra gertatuak, ahozko lekukotzetan eta idazleen testuetan oinarrituak.

Haietan barna, XX. mendean zehar Ipar Euskal Herriko herri tipi batek bizitako aldaketa sozialak agerian.

Hizkuntza baten erroizte eta hurrentzea.
Eta bizirauteko borroka.

Ekipoa teknikoa

Gidoia eta zuzendaritza	Josu Martinez
Argazki zuzendaria	Hibai Castro Egia
Ekoizle eragileak	Josu Martinez Katti Pochelu Mikel Arredondo Ane Antoñanzas
Muntaia	Maialen Sarasua Oliben Laurence Larre Alex Argoitia Castro
Musika	Joserra Senperena
Soinu diseinua	Xanti Salvador
Arte zuzendaritza	Izaskun Urkijo Alijo



Ekipa artistikoa

1982

Bea Kurutxarri

Bixente Indart

Mila Arrangoits

Lea Campistron

Martxela Aneva-Fuchs

Arantxa Hirigoien

Hèléne Hervé

Titika Rekalt

Ximun Fuchs

Eneida Alfaro Camus

Kristiane Etxaluz

Laura Kurutxarri Itzaina

Ander Lipus

Amaia Etxandi

Manex Fuchs

Xantiana Bordarai

Baigorri ibarreko 200 herritar
baino gehiagoren parte hartzearekin

An aerial photograph of a terraced hillside. The hillside is covered in rows of young trees, each supported by a vertical wooden stake. The terraces are closely spaced, creating a rhythmic pattern across the slope. The ground between the rows appears to be covered in low-lying vegetation or moss. On the right side of the image, there is a larger, leafless tree with a complex branch structure. The overall lighting is soft, suggesting an overcast day or late afternoon.

Detaille teknikoak

Iraupena 82 minutu

Hizkuntza Euskara, frantsesa, alemana

Formatua DCP 2K 1.85:1

Zuzendariaren oharra

Bilbotarra sortzez, bada zenbait urte Baigorri herrian bizi naizela, Ipar Euskal Herrian. Ni frantsesez ez aski ongi mintzo, eta bertakoak berdin espainolez, konpartitzen dugun hizkuntzan mintzatzen gara ia beti: euskaraz. Haatik, laster ohartu nintzen herritar asko ez zirela hizkuntza horretan eroso sentitzen. Edo hobeki esateko, halako lotsa bat bazutela.

Denbora guzi honetan, belaunaldi ezberdinetako pertsona asko gurutzatu ditut; eta elkarrizketa luzeak izan ditugu haien biziaz eta herriaren memoriaz. Eta ikusi dut Baigorriin, Euskal Herriko beste hainbat herri bezala, XX. mende osoa gurutzatzen zuen prozesu sozial bat gertatu dela: hizkuntza baten eta kultura oso baten galtzearena. Mende hasieran, herritar gehienek euskara baizik ez zekiten. Mende bukaeran, frantsesa zen nagusi kalean zein etxe gehienetan, eta gaizki ikusiak ziren euskara atxikitzen zutenak.

Nola hiltzen da hizkuntza bat?

Film honekin, euskararen desagertzea kontatu nahi izan dut: eta biziraute borroka ere bai. Hizkuntzarena baino gehiago, hiztunena. Euskara jendearena.



Herritarren ahotik bildutako lekukotzak dira filmaren oinarria. Eta herritarrak protagonista. Beren aitatxi-amatxi, aita-amen errola jokatzen dute. Beren buruaz ari dira, memoria berreskuratze ariketa batean bezala.

Baina film hau ez da Baigorri mintzo. Historia berdina, beste hamaika euskal herritan ere gertatua baita. Hizkuntzaren desagertzea prozesu zabala baita, izan. Eta ez Euskal Herrian bakarrik. Mundu osoan, 6.000 hizkuntza desagertu dira historian. Mundua ikusteko 6.000 modu. 6.000 mundu. Horregatik, film hau, mapetan agertzen ez den herri baten kokatu dut, Bizkarsoron.

Bost mugimenduko sinfonia bat bailitzan, filman leku eta jende berdinak agertzen dira, garai ezberdinetan.
1914: emakume bat gutun baten esperoan bizi da.
1921: haurrek "Anti" izeneko makil baten bidez ikasten dute eskolan.
1940: alemanen okupazioan, Francorengandik ihesi Hego Euskal Herriko etorritako euskaldunak desagertzen dira.
1966: lau gaztek hitz batzuk aurkitzen dituzte mendian lurperatuta.
1982: guraso talde batek bere haurrentzat euskarazko eskola bat sortzen du.

Denek elkarrekin puzzle bat osatzen dute. Esistitzen ez den herri baten sinfonia. Euskara jendearen XX. mendeko historia, herriaren ahotik jaso eta herriaren begietatik kondatua.





Zuzendaria

JOSU MARTINEZ izen ezaguna da azken urteetako euskal zinemagintzan, bereziki, dokumentalgile gisa.

Bederatzi dokumental luze burutu ditu, haietarik zortzi Donostiako Zinemaldian estreinatu direnak.

Zinemaren historian doktorea eta kultur antropologian lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitateko zinema irakaslea da.

Zinema eta memoria kontuei buruzko lau libururen egilea ere bada.

BIZKARSORO bere fikziozko lehen film luzea da.

Filmografia

Itsasoaren alaba (2009)

Sagarren denbora (2010)

Debekatuta dago oroitzea (2010)

Barrura begiratzeko leihoak (2012)

Gure Sor Lekuaren bila (2015)

Jainkoak ez dit barkatzen (2018)

Caminho Longe (2020)

Paperezko hegoak (2021)

Mirande (2023)

BIZKARSORO

Kontaktua katti@gastibeltza.eus